



NEURRIA ZAINDUZ



Hutsuneak beteko ditugu; alboko hitzen artean egoki datorrena **azpimarratuko** dugu. Kontuz **hankaluzerik eta hankamotzik** egin gabe!

HERRI KIROLAK



Doinua:

Gizona da zorua
Zortziko txikia

Gorputza mugitzeko



bada nahiko **tarte** / bada nahiko **denbora** / bada nahiko buru**hauste**

egun hasieratik

gaua heldu **arte**



gauza gehiagotan / beste gauzetan / gauza ezberdinetan

har dezagun **parte**

kirol asko baitaude

futbolaz **aparte**.

Frontoien oihartzuna / Frontoien hotza / Frontoiairen kolorea
piloten **tokea**
esku, pala, laxoa
(e)ta **erremontea**
ahal bezain azkar / ahal bezain gogor / sartu gerria eta
tiratu **kolpea**
(e)ta eskas geldituko
da **errebotea**!

Herri kirolek ere
galdu zuten **fama** / ze gogorrak, ai **ama!** / badute **xarma**
lasto altxatze, sega,
koskol biltze, **arpana** / aizkora, **arpana**/ sokatira, **arpana**
harri handiek ere
non daukate **zama**?
Euskaldunak harri jasotzaile bat / Euskarak harria/ Euskaldunak kirola
senean **darama**.

Aukerak makina bat / Aukerak asko / Aukerak pila bat
dauzkagu gaur **egun**
beraz ikuspegia
aldatu, **lagun!** / zabaldu **dezagun** / arima, buru ta **garun**
kirol ezberdinetan
izan **txapeldun** / ia zer egin **dezakegun** / probatu ta **jardun**
hala jakingo dugu
zer gustatzen **zaigun!**